LAUDIO ikastola

2023/01/27

# AGATE DEUNA BEZPERA

## OLES OLES AMALURRA ESNA ZAITEZ!




***Otsailaren 4an,*** *Agate Deunaren bezperan, kopla zaharrak abesteko ohiturari eutsi eta ekimen berritzailea adostu dugu Laudioko ikastetxeok Kirikiño taldea eta Basalarrina Euskal Topagunearekin batera.*

*"Oles oles amalurra esna zaitez!" kalejira burutuko dugu guztion artean* ***otsailaren 4an 17:30etik aurrera Lamuza plazatik abiatuta.*** *Jarraian Herriko plazan* ***askaria*** *egingo dugu, partaideok berton partekatzeko eramandako ekarpenekin.*

*Bezperako egunean,* ***otsailaren 3an, 18:00etan, Herriko plazan kalejira prestatzeko entsegua*** *burutuko dugu guztion artean.*

*Deialdi irekia da, haur, gazte eta helduok, familian zein lagun artean parte har dezagun. Antolaketa behar bezala garatu dezagun, egun bakoitzeko hitzorduetara* ***aurretik izena ematea eskatzen dugu formulario honetan: https://labur.eus/amalurraesnatu.***

**izena eman**

## AMALURRARI KOPLAKA

*Irrien lagunen kopla baliatuta bideoak biltzeko ekimena era abiatu da.* ***Familiarekin edo lagunekin kantatzen bideoak sortu eta 688 726 665 telefonora bidali*** *daitezke otsailaren 3a baino lehen. Parte hartzaile guztien artean Zuhaitza liburudendan erabiltzeko 30€ko opari txartela zozkatuko da.*

## IKASTOLAKO PROGRAMA

*Egun hauetan Agate Deuna bezperako koplak prestatzen arituko gara Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta ostiralean,* ***otsailaren 3an, Ikastola eremuan hainbat agerraldi*** *burutuko ditugu. Horrez gain Haur Hezkuntzako etapan* ***3, 4 eta 5 urtekoek gurasoentzako agerraldia egingo dute 16:30ean.***

*Oles egitera gatoz!*

*Oles,*
*oles*
*lurra*
*esna zaitez!*
*Oles,*
*oles*
*lurra*
*esna zaitez!!!*

*Aharrausi*
*egin du basoak*
*zuhaitzek*
*zabaldu besoak*
*kantuan*
*hasi dira*
*birigarroak*
*eta zozoak.*

*Aharrausi*
*egin du basoak*
*zuhaitzek*
*zabaldu besoak*
*dantzari*
*hasi dira*
*azeriak*
*eta otsoak.*

*Aharrausi*
*egin du basoak*
*zuhaitzek*
*zabaldu besoak*
*berriro*
*entzun dezan*
*taupadaka*
*mundu osoak*

LAUDIO ikastola

2023/01/27

# AGATE DEUNA BEZPERA

## OLES OLES AMALURRA ESNA ZAITEZ!




*El **4 de febrero**, la víspera de Santa Águeda, participaremos en una iniciativa común de los centros escolares de Laudio, Kirikiño taldea y Basalarria Euskal Topagunea para cantar Santa Águeda.*

*Nos reuniremos en la kalejira "Oles oles amalurra esna zaitez!" para despertar a la madre tierra **el 4 de febrero a las 17:30 en la plaza Lamuza.** Al finalizar la kalejira realizaremos una **merienda en la Herriko Plaza** con lo que cada participante aporte.*

*La víspera, **el 3 de febrero, a las 18:00, realizaremos un ensayo general** en la Herriko Plaza.*

*La convocatoria está abierta a la participación de niñas y niños, jóvenes y personas adultas, tanto en familia como en cuadrilla. Para poder organizar la actividad será **necesario inscribirse para cada día en el siguiente formulario: https://labur.eus/amalurraesnatu.***

**inscripción**

### AMALURRARI KOPLAKA

*Hay en marcha también una iniciativa para recopilar vídeos cantando la copla de Irrien lagunak. **Se trata de grabar vídeos en familia o en cuadrilla y enviarlos al teléfono 688 726 665** antes del 3 de febrero. Todos los vídeos entrarán en un sorteo de un bono de 30 euros para utilizar en la librería Zuhaitza.*

### PROGRAMA DE LA IKASTOLA

*Estos días estamos ensayando las coplas de Santa Águeda en Educación Infantil y Primaria y **el viernes, 3 de febrero, realizaremos varias actuaciones en el recinto de la Ikastola**. Además el alumnado de **3, 4 y 5 urte cantará a las 16:30 en el patio de Ed. Infantil.***

*Oles egitera gatoz!*

*Oles,
oles
lurra
esna zaitez!
Oles,
oles
lurra
esna zaitez!!!*

*Aharrausi
egin du basoak
zuhaitzek
zabaldu besoak
kantuan
hasi dira
birigarroak
eta zozoak.*

*Aharrausi
egin du basoak
zuhaitzek
zabaldu besoak
dantzari
hasi dira
azeriak
eta otsoak.*

*Aharrausi
egin du basoak
zuhaitzek
zabaldu besoak
berriro
entzun dezan
taupadaka
mundu osoak*